5. Oinarrizko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola erakundearen adierazpena eta haren propietateak, existentzia, kopurua eta kualitatea, espazioa eta espazio-erlazioak, modua, denbora eta denbora-erlazioak, aspektua eta modalitatea, konparazioa, baldintza (lehen hurbilketa), baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura, oinarrizko erlazio logikoak: lokailuak, deiktikoak, sinonimoak...
6. Ikasleek erabili ohi duten eta beren interesekoa den lexikoa, alderdi hauei buruzkoa: norberaren identifikazioa; pertsonen arteko harremanak; toki eta inguruneak; aisia eta aisialdia; eguneroko bizitza; osasuna eta jarduera fisikoa; etxebizitza eta etxea; klima eta ingurune naturala; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eskola-sistema eta prestakuntza.
7. Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroi horiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.
8. Oinarrizko konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, berriro formulatu, alderatu eta kontrastatzeko, laburtzeko, kolaborazioan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar.
9. Informazioa bilatu, hautatu eta kudeatzeko erabili ohi diren estrategiak. Jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliagarritasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeko estrategiak.
10. Ulermen, produkzio eta koprodukziorako -ahozkoa, idatzizkoa eta multimodala- erabili ohi diren tresna analogikoak eta digitalak; eta hezkuntzaren arloko interakzio, kooperazio eta kolaborazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.

B. ELEANIZTASUNA ETA IKASKUNTZARI BURUZKO GOGOETA

1. Autokonfiantza eta ekimena. Akatsa, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa.
2. Oinarrizko komunikazio-behar jakin bati modu ulergarrian eta eraginkortasunez erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzako eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetako konpetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik.
3. Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak eta barietateak alderatzetik abiatuta.
4. Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak.
5. Hizkuntzen arteko konparaziorako oinarrizko estrategiak, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.
6. Ikasteko baliabideak eta informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kudeatzeko erabilera komuneko estrategiak (hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak, baliabide digital eta informatikoak, zuzentzaile ortografikoak, etab.)

C. KULTURARTEKOTASUNA

1. Atzerriko hizkuntza, pertsonen arteko eta nazioarteko komunikazio-bide, informazio-iturri eta norberaren aberastasunerako tresna gisa.
2. Atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiez, oinarrizko ortografia-konbentzioak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz.
3. Eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, generoaren analisitik; oinarrizko gizarte-konbentzioak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-kortesia eta etiketa digitala; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko lurralde-banaketa, kultura, ohiturak eta balioak.
4. Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko oinarrizko estrategiak. *
5. Literatura-testuaren eta irakurketa balorazioa, gozamen-iturri gisa, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.

GIZARTE ZIENTZIAK

A. Egungo munduaren erronkak

1. Informazioaren bilaketa esparru digital eta analogikoetan, informazio horren irakurketa eta balorazio kritikoa eta hainbat formatutan produktu anitzen sorrera, ezagutza lantzeko bide gisa.
2. Geografia aztertzeko teknikak eta metodoak: testuen azterketa, edozein euskarritan adierazitako mapak, eskemak, sintesiak, grafikoak eta irudiak interpretatzea eta prestatzea.
3. Historia-, Arte- eta Geografiaren berariazko lexikoa erabiltzea.
4. Paisaia geografikoak. Erliebearen eraketa eta eraldaketa. Hidrosfera: zikloa, sailkapena eta giza jardueren gaineko eragina. Lurraren mugimenduak eta denborarekin eta klimarekin duten erlazioa. Klimogramak.
5. Tokiko, eskualdeko eta munduko paisaia naturalak: paisaia-motak eta ezaugarriak.
6. Euskal Herriko ezaugarri naturalak (kokapen geografikoa, erliebe-formak, hidrografia, klima eta landaredia) penintsulako eta kontinenteko testuinguruan.
7. Landa- eta hiri-paisaia Euskal Herrian. Egoera demografikoa eta ekonomikoa, eta etorkizuneko arazo eta erronka nagusiak.
8. Gaur egungo munduaren antolaketa politikoa: estatu motak eta gobernu ereduak. Zuzenbide-estatua eta konstituzioren balioak. Demokrazia:

printzipioak, prozedurak eta erakundeak.

9. Gaur egungo gatazka nagusiak. Nazioarteko aliantzak eta erakundeak (NBE, NATO, EB, etab.), bitartekaritza eta bake-misioak. Esku-hartze humanitarioa eta Justizia Unibertsala. Genozidioak eta gizateriaren aurkako krimenak. Gerrak, terrorismoa eta beste indarkeria politiko mota batzuk.
10. Antolakuntza ekonomikoa: baliabide, sektore, eskualde-merkatu eta merkataritza-politiken deskribapena. Potentzia politiko-ekonomikoen nazioarteko harremanak, kolaborazioa eta tentsioak.
11. Aberastasunaren kontzentrazioa eta banaketa. Zergen funtzioa. Bizitzeko gutxienekoaren auzia.
12. Emakumeen eta nesken papera egungo gizarteetan: hezkuntzarako eskubidea, lana eta boterea eskuratzeko aukerak eta haien kontrako diskriminazio-egoerak munduan zehar. Genero-rolak eta horien isla gizartearen eta kulturaren esparru guztietan.

B. Gizarteak eta lurraldeak.

1. Historiaren ezagutza eraikitzeko, ikerketako lan-metodologiei eta -teknikei buruzko sarrera: iturri historikoak, iraganari buruzko ezagutza eraikitzeko oinarri gisa. Eskola historiografikoen teoria eta metodoen arteko kontrastearen zergatia ezagutzea, Historia zientzia gisa eta eskola horien jarraitzaileen ikuspegiak aztertzeari ekiteko.
2. Azalpen historikoaren kausa anitzak. Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen identifikazioa, korronte historiografikoen arabera.
3. Denbora historikoa: Denbora-lerroen eraikuntza eta interpretazioa, prozesu historikoak ulertzeko, linealtasun-, kronologia-, aldiberekotasun- eta iraupen-ikuspuntuen bidez.
4. Gizarte-egituren eboluzioa Historiaurretik gaur egunerarte, hauen antolketa eta prozesu demografiko ezberdinak aztertuz.
5. Antolaketa politiko mota desberdinak Historiaurretik gaur egun arte: oligarkia, erresuma, inperioa, errepublika, diktadura eta demokrazia.
6. Sistema ekonomiko ezberdinak historian zehar, Historiaurretik gaur egunera arte.
7. Arte- eta kultura-adierazpenen esanahia eta funtzioa zibilizazio desberdinetan: Historiaurretik gaur egunera arte. Ondare material eta immaterialarenganako errespetua eta horien babesa eta kontserbazioaren garrantziaz kontzientziatuz.
8. Zientzia, medikuntza eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoak Historiaurretik gaur egunera arte: erantzun berriak munduari buruzko galdera nagusiei.
9. Erlijioak antolaketa politiko eta sozialean, boterearen legitimazioan eta identitate erlijiosoen eraketan izan duen zeregina Historiaurretik gaur egunera arte.

10. Emakumeen rol eta egoera ezberdinak historian zehar, baita hauek izan duten papera politika, zientzia eta gizarte arloetan.
11. Iberiar Penintsula eta euskal lurraldeak Historiaurretik gaur egunera arte.

C. Konpromiso zibikoa

1. Giza duintasuna eta eskubide unibertsalak. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.
2. Genero berdintasuna. Adierazpen eta jokabide ez-sexistak eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista.
3. Toki-ingurunean eta ingurune globalean gaur egun dauden erronken eta arazoen aurrean interesa.
4. Bizikidetza zibikoa eta kultura demokratikoa. Gizarte zibileraren kide izatea eta inplikatzea. Komunitateproiektuetan parte-hartzea.
5. Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetarenganako errespetua eta horien babesa eta zaintza.
6. Natura-, historia-, arte- eta kultura-ondarearen zaintza eta babesa. Euskal Herrian eta Espainian natura- eta kultura-ondarea babesteko legeak.
7. Bizi-zikloak, aisialdiaren erabilera eta kontsumo-ohiturak: egungo eta iraganeko gizarteetako bizimoduetan dauden desberdintasunak eta aldaketak.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOEN AZALPENA

1. Hainbat iturritako informazioa (historikoak eta geografikoak barne) gero eta modu autonomoagoan bilatzea, hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz; eta informazio hori ezagutza bihurtzea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa eta pertsonala hartuz eta, aldi berean, jabetza intelektuala errespetatuz.

Informazioa eskuratzeak ez du berez ezagutza bermatzen; izatez, ezagutza ulertu behar da gizarte modernoaren printzipio egituratzaile gisa eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko funtsezko tresna gisa. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek informazioa ezagutza bihurtzeko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea, eta, horretarako, jakitea informazio hori noiz behar den, non bila daitekeen, nola kudea daitekeen eta nola ebaluatu eta komunikatu daitekeen, betiere ikuspuntu kritiko eta pertsonaletik eta jarrera etiko, arduratsu eta errespetuzkoa erakutsiz jabetza intelektualeko lizentzia motekiko eta nortasun digitalarekiko.

Konpetentzia horiek entrenatzea eta erabiltzea funtsezkoa da datuak, edukiak eta jakintzak, hau da, ezagutza, eskuratzeko eta barneratzeko. Horretarako, bilaketa-sistemak, datu-baseak eta baliabide-plataformak ikasleentzat eskuragarri dauden ingurune digitaletan erabiltzearekin lotutako estrategia konplexuak garatu behar dira, dokumentu eta iturri geografiko eta historikoak erabiltzeaz gain. Prozesuak, ulermenezko irakurketarako, iturrien kritikarako, datuen maneiurako eta

metaketarako oinarrizko prozesuak barne hartzen ditu, baita partekatutako informazioa modu eraginkorrean konektatzeko eta antolatzeko estrategia egokiak ere, bai banakako, bai talde lanetan.

Ahalegindu behar da ikasleek —bakarka edo modu kooperatiboan— askotariko informazio-iturri fidagarriak eta seguruak kontsultatzea testuinguru sozial edo akademikoetan, betiere curriculumeko gaiei buruzko edo gaurkotasun sozial, zientifiko eta kulturaleko alderdi garrantzitsuei buruzko ikerketa-lanak edo -proiektuak egin daitezen. Ikerketa-prozesu horiek gero eta autonomia handiagoz planifikatzera eraman behar dute, baita lortutako ezagutzaren dibulgazioaren berezko produkzioen aurkezpenean ezarritako konbentzioak gero eta autonomia handiagoz errespetatzera ere: epígrafe bidezko antolaketa; aipuak, oharrak, bibliografia eta webgrafia jasotzeko prozedurak; eta mezu multimodaletako komunikazio-kodeen konbinazio egokia. Ikaskuntza berriaren hedapenean ezinbestekoa da, halaber, sormena garatzea eta testuingurura egokitzea. Eskolako liburutegia izango da konpetentzia hori eskuratzeko inguruneetako bat —kultura irakurri eta zabaltzeko tokia eta, gainera, ikaskuntzarako sormenezko gunea—.

2. Idatzitako, ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena bilduz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitzeko, eta askotariko komunikazio-premiei eta -interesei erantzuteko eta gozameneko eta aisiarako aukerak zabaltzeko.

Ahozko ulermenaren estrategien garapenak berarekin dakar komunikazioa asmoen interpretazio-prozesu etengabea dela ulertzea, baita prozesu horretan igorlearen eta hartzailearen arteko ezagutza partekatuek eta testuinguruko elementuek eta elementu kotestualek parte hartzen dutela ere, testuaren esanahiaz harantzago joateko eta testuaren zentzua interpretatzeko aukera ematen duten heinean. Orain dela gutxi arte ahozko komunikazioa beti sinkronoa bazen ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek komunikazio asinkronoaren aukerak zabaldu dituzte eta komunikazio-ingurune digital publikoetarako sarbidea ireki dute eskolatik. Eskolak hainbat esparrutako berezkoak diren eta ikasleentzat adierazgarriak diren praktika diskurtsibo ugari plantea ditzake eta planteatu behar ditu, gizartean garrantzia duten gaiak eta euskal kultura-ondareko gaiak lantzen dituztenak, hala nola baladak edo abesti herrikoiak.

Ahozko mezuak behar bezala ulertu eta interpretatuko badira, trebetasun espezifikoak eduki beharko dira, eta horiek ere irakatsi eta ikasi beharko dira: edukia aurreratzea, informazio garrantzitsua gordetzea, helburuaren beraren arabera, egitateak eta iritziak bereiztea, edo diskurtsoaren zatien arteko lotura eta esanahi orokorra atzematea edo testuaren fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzea. Gizarte-arloari dagokionez, ahozko mezuen interpretaziorako trebetasunak eskolan garatzerakoan, kontuan hartu beharko dira ikus-entzunezko alfabetatze mediatiko espezifikoa eskatzen duten askotariko testu multimodalak, manipulazio- eta desinformazio-arriskuei aurre egin dakien.

Irakurtzeko konpetentzia garatzeak berarekin dakar irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren zabaldu behar diren estrategien ezagutzan eta erabileran ere, neska-mutilak orotariko testuen aurrean irakurle gaitu, autonomo eta kritikoak izan daitezen, testuen kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatzen jakin dezaten eta testu horietan beren bizitzako esparru guztietako irakurketa-xedeei erantzun dakien.

Testu bat ulertzeak esanahi du testuaren zentzu orokorra eta irakurketaren helburuaren araberako informaziorik garrantzitsuena jasotzea, informazio esplizitua integratzea eta behar diren inferentziak egitea, betiere testuaren zatien arteko lotura berreraikitzeko, testu horien azpian dagoen komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak formulatzeko, eta testu horien formari eta edukiari buruzko gogoeta egiteko. Ildo horretan, komeni da ikasleen irakurketa-prozesuei arreta handia jartzea ikasgelan. Horretarako, kontuan hartu behar da, batetik, irakurleak testuan jasotako gaiarekin izan dezakeen lotura emozionala, eta, bestetik, XXI. Mendeko alfabetatzeak nahitaez barne hartu behar duela Interneteko hipertestuak irakurtzen irakastea. Hizkuntzako klaseetan erabiltzen diren testu idatzien esparruak dibertsifikatu behar dira, eta testu horiekin ikasgelan lan egiteko testuinguru adierazgarriak sortu behar dira, testuen eta proposatutako zereginen konplexutasuna mailakatuz eta osagarritasuna bilatuz (testuen luzera, egitura, hizkuntza, gaia, eta abar hartuko da aintzat). Ezinbestekoa da, beraz, curriculumeko beste irakasgai batzuekin koordinatuta lan egitea, jakintza-arlo bakoitzari lotzen zaizkion diskurtso-generoen berezitasuna kontuan izanik. Horrez gain, beste curriculum-hizkuntzekin koordinatuta ere lan egin beharko da.

3. Idatzizko, ahozko testuak eta testu multimodalak jariotasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, eta ahozko elkarreraginetan jarrera kooperatiboz eta errespetuz parte hartzea, bai ezagutzak eraikitzeko eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai gizarte-testuinguruetan modu aktiboan eta informatuta parte hartzeko, bai komunikazio-eskaera zehatzei modu eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko.

Ikasleen komunikazio-konpetentzia garatze aldera, ezinbestekoa izango da ahozko erabilerei arreta jartzea, ikasteko bide zein ezagutza-gai izan behar baitute. Hizkuntzako eta literaturako klaseek testuinguru dibertsifikatu eta adierazgarriak eskaini behar dituzte, esparru publikokoak zein pertsonalak eta/edo etxekoak. Ikasleek hitza hartu ahal izango dute eta beren parekoekin zein pareko ez direnekin hitz egiteko aukera izan behar dute elkarrizketa pedagogikoki bideratuetan eta hizkuntza sexistarik gabe. Bestalde, ezagutzen eraikuntza bultzatu behar dute, hizkuntzaren erabilera formalei eta informalei, bat-batekoei edo planifikatutakoei buruz gogoeta egin dezaten.

Euskara eskola-hizkuntza denez gero, konpetentzia honek garrantzi berezia du Euskara eta Literatura irakasgaian. Irakasgai horrek hainbat egoera sortu eta bultzatu beharko ditu ikasgelaren barruan eta kanpoan, ikasleek elkarreragin ahal izan dezaten, euskarak gizartean duen presentzia sozial txikiagoa konpentsatze aldera. Ez dugu ahaztu behar ikasle batzuentzat ikastetxea dela euskararekin harremana duten gune urrietako bat, bakarra ez bada. Horrenbestez, hizkuntza horren ahozko erabilera formala eta informala bermatzeko eta indartzeko ahaleginak areagotu beharko dira, erabilera hori bizitza sozialera zabal dadin.

Ahozko elkarreraginak honako alderdi hauek eskatzen ditu: hitza hartu eta emateko estrategiak ezagutzea; modu aktiboan eta errespetuz entzuteko jarrerak zabaltzea, erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuz; arin, argi eta tonu eta erregistro egokiz adieraztea; eta kortesiako eta elkarrizketa-kooperazioko estrategiak erabiltzea. Ahozko produkzio formalak —monologoan edo elkarrizketan— plangintzarako aukera ematen du, eta, hartara, estrategiak partekatzen ditu idazketa-prozesuarekin. Komunikazio-egoerari —egoeraren formaltasun handiagoa edo txikiagoa kontuan izanik—, solaskideen arteko erlazioari, komunikazio-asmoari

eta komunikazio-kanalei erreparatuta, diskurtso-generoek (zenbait esparrutako berezko komunikazio-praktikak gauzatu dituzten moldeak) diskurtsoa egituratzeko jarraibideak eskaintzen dituzte, baita erregistroa eta hitzik gabeko portaera egokitzeko jarraibideak ere. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ahozko komunikazio multimodalerako (sinkronoa zein asinkronoa) formatu berriak ekartzen dituzte, eta, era berean, ikasleen ahozko ekarpenak erregistratu ahal izatea errazten dute, testuinguru errealetan heda daitezen eta ondoren aztertu, berrikusi eta ebalua daitezen (autoebaluazioa eta koebaluazioa).

Idazten jakiteak, gaur egun, zenbait euskarritan eta formatutan egiten jakitea eta bizitzan zehar ikastea esan nahi du. Izatez, formatu eta euskarri horietako asko hipertestualak eta multimodalak dira, eta zenbait erabilera-esparrutako berezko idatzizko komunikazio-praktikak gauzatu dituzten «moldeak» ezagutu eta menderatu behar dira: diskurtso-generoak. Hori dela eta, idazmenaren irakaskuntzak/ikaskuntzak ikasgelan arretaz eta etengabe esku hartzea eskatzen du. Idatzizko testu bat egitea lau une, gutxienez, dituen prozesu baten emaitza da, bat-batekotasun handieneko formetan ere bai: plangintza (komunikazio-asmoa eta komunikazio-egoeraren hartzailea eta azterketa zehaztea eta ereduak irakurtzea eta aztertzea), testualizazioa, berrikuspena (autonomoa izan daiteke edo beste ikasle batzuekin batera egindakoa edo irakasleek gidatutakoa) eta azken testuaren edizioa.

Hezkuntzaren esparruan, enfasia jarriko zaie idazketaren erabilerei —apunteak hartzeko eta eskemak, mapa kontzeptualak edo laburpenak egiteko—, sormenezko idazketaren praktikei eta testu akademiko, analogiko eta digitalen idazketari. Testu idatziaren konposizioak hurrengoak hartu behar ditu kontuan: informazioaren aukeraketa eta antolaketa (koherentzia); testuaren zatien eta haien hizkuntza-marken arteko lotura (kohesioa); erregistroaren aukeraketa (egokitasuna); zuzentasun gramatikala eta ortografikoa; eta egokitasun lexikoa. Halaber, erabakiak hartu behar dira idatziaren tonuari buruz, pertsonak (igorlea eta hartzaileak) diskurtsoan inskribatzeari buruz, eta estilo eta hizkuntza ez-sexistari buruz; hortaz, ezin da bereizi hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta esplizituaren eta erabileretan duen proiekzioaren arteko lotura.

4. Hizkuntzaren egiturari eta haren erabilerei buruzko ezagutza mobilizatzea eta hizkuntza- eta diskurtso aukeraketei buruz gero eta autonomia handiagoz eta terminologia egokiarekin gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko, komunikazio-errepertorioa handitzeko eta ahozko eta idatzizko produkzio-trebetasunak nahiz ulermen eta interpretazio kritikoko trebetasunak hobetzeko.

Hizkuntzaren ikasketa sistematikoa erabilgarria izango bada, batetik, ikasleen konpetentzia metalinguistikoa sustatu beharko du, hau da, ikasleak arrazoitzeko, argudiatzeko, behatzeko eta aztertzeko duen gaitasuna sustatu beharko du, eta, bestetik, hiztunen berezko erabilera errealekin lotuta egon beharko du, testuinguruan kokatutako arlo publiko eta sozialeko zein arlo pertsonal eta/edo etxeko arloko ahozko eta idatzizko testuen bidez. Gogoeta metalinguistikoak ikaslearen intuiziozko ezagutzatik abiatu behar du —hizkuntzaren erabiltzaile den heinean—, eta zubiak eraiki behar ditu, txiki-txikitatik, ezagutza sistematikoarekin, lehenik eskolako errealitatetik hurbilago dagoen hizkuntza komunarekin eta, gero, terminologia espezifikoa pixkanaka sartuz. Gainera, maila morfosintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa integratu behar ditu hizkuntza-formen ikasketan.

Hortaz, gramatikaren ikaskuntzari ekingo zaio ezagutza gramatikal esplizitua eta hizkuntzaren erabilera lotzearen bidetik, betiere gogoetatik abiatuta. Horretarako, hizkuntza-formek diskurtsoan hartzen duten esanahia eta funtzioa behatu behar da, orokortzera eta sistematizaziora iristeko enuntziatuen manipulaziotik abiatuta, edo perpausen arteko kontrastetik, hipotesien eta arauen formulaziotik, kontraadibideen erabileratik edo beste hizkuntza-fenomeno batzuekiko loturatik abiatuta. Azken batean, bizitza osoan zehar garatuko den gogoeta metalinguistikoa eta interlinguistikoa suspertu nahi da, ikasleek hizkuntzari buruz pentsatu eta hitz egin dezaten, betiere ezagutza horrek norberaren produkzioa hobetzeko eta besteen produkzioak hobeto ulertzeko eta modu kritikoan interpretatzeko.

Hizkuntza-errepertorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta lotuta daude hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunarekin. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua da ikasleek dakizkiten hizkuntzekin dituzten esperientziak oinarri baliagarriak direla hizkuntza berrien ikaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko, eta esperientzia horiek lagungarriak zaizkiela beren hizkuntza-errepertorio eleanitza garatzeko eta aberasteko, baita jakin-min eta sentsibilizazio kulturala zabaltzeko ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleek hizkuntzei buruzko gogoeta horretan sakontzen dute eta beren errepertorio indibidualetako hizkuntzen arteko harremanak ezartzen dituzte; hizkuntza horien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzen dituzte, errepertorioa osatzen duten hizkuntzetako ezagutzak eta estrategiak zabal ditzaten. Horrela, hizkuntza berriak ikastea errazten da eta komunikaziorako konpetentzia hobetzen da. Hizkuntzei eta horien funtzionamenduari buruzko gogoetak berekin dakar ikasleek haien arteko erlazioak ulertzea, eta, horrez gain, hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan dituzten indarguneak eta gabeziak identifikatzen laguntzea, norberaren ezagutzez eta estrategiez jabetuta eta horiek esplizitu eginda. Ildo horretatik, berekin dakar, orobat, ziurgabetasunari aurre egiteko trebetasunak eta ekimenaren zentzua eta pertseberantzia garatzeko trebetasunak abian jartzea, helburuak lortu edo erabakiak hartze aldera.

Gainera, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak aukera ematen du gizartearen hizkuntza-aniztasuna aberastasun-alderdi positibotzat hartzeko. Norberaren hizkuntza-errepertorioan eduki berriak eraikitzeko eta integratzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatu, konfiguratu eta aplikatzeak erraztu dezake beste hizkuntza batzuk ikastea eta hobetzea.

5. Askotariko lanak, arte- eta literatura-lanak, plazer- eta ezagutza-iturri gisa hautatu, irakurri, interpretatu eta baloratzea, aldez aurreko kultura-esperientziak eta -ezagutzak mobilizatuz, mugimendu eta adierazpen artistiko desberdinen artean loturak ezarriz, kultura- eta arte-ondarea nortasun- eta gizarte-kohesioko elementu gisa ezagutuz, hautemanez eta balioetsiz, norberaren irakurketa-identitatea eraikitzeko, literatura eta artea gozatzeko aukerak zabaltzeko eta literatura-asmoko testuak sortzeko.

Konpetentzia hau garatzeko, aurrerabide planifikatutako bide bat egin behar da. Horretarako, aldian behin eta etengabe irakurri behar da, bai bakarka bai taldean. Horrekin batera, estrategia eta aldamio egokiak erabili beharko dira irakurzaletasuna sustatzeko eta irakurtzeko autonomia konfiguratzeko, bai eta bi ikasturte hauetan aztertutako aldietako artelanak aztertu eta gozatzeko ere.

Funtsezkoa da testu-corpus eta arte-ondare egokia eratzea, ikasleen dibertsifikazio-ohituraren hasierako mailara egokitua, eta, corpus horretan, euskal kultura-ondarearekin zerikusia duten obrak egotea eta emakumezko idazleen presentzia adierazgarria izatea. Corpus hori irakurketa autonomoa eta artea irakurtzeko

eta gozatzeko esperientzia pertsonala aberastea ahalbidetuko duten kalitatezko obrek osatu beharko dute, eta egungo forma artistiko eta literatura-formak —inprimatuak eta digitalak—, baita azaleratzen ari diren kultura-praktikak ere. Horrekin batera, honako jarraibide hauek gomendagarriak dira: erreferente berak dituen irakurle-komunitatea eratzeko lan egitea —zenbait kasutan belaunaldi arteko komunitatea—; pertsona bakoitzari bere intereseko testuak aukeratzen lagunduko dioten estrategiak ezartzea, testuez jabetzea eta irakurketa-esperientzia pertsonala partekatzea; eta askotariko testuinguruak ezartzea, non irakurtzeko arrazoiak agertuko diren, obrei buruzko ikerketa-erronketatik abiatuta. Era berean, modu gidatuan garatu behar dituzte interpretazio-trebetasunak, idazlanaren zentzua bere testu- eta testuinguru-elementuekin lotzeko aukera ematen dutenak, literaturaren kasuan, formalak eta testuingurukoak, artearen kasuan; kultura-mapa eraikitzea; eta irakurritako edo aztertutako lanen eta bestelako arte-adierazpenen artean loturak ezartzea. Kultura-garaiak eta -testuinguruak zeharkatzen dituzten unibertsal tematikoen eta formalen iraupena egiaztatzeak testuarteko ikuspegia lehenestea dakar. Literatura-asmoko testuen sorrera bultzatzeak generoen konbentzio formalak menderatzen laguntzen du.

Hori dela eta, irakurketa autonomoa sustatzeaz gain, beharrezkoa da gelan irakurketa gidatua eta partekatua egitea, ikasleentzat nolabaiteko erresistentzia duten lanak egiteko, baina, irakasleen bitartekotzari esker, lan horiek ez dira soilik gozatuko, baizik eta elementu garrantzitsuez jabetu ahal izango dira. Obra horiek zenbait garai eta testuingurutako testu literario eta ez-literarioek osatutako gaikako edo generoko ibilbideetan sartzen badira, eta testu horien irakurketa konparatua gai, topiko eta forma estetikoen bilakaerari badagokio, ezaugarri garrantzitsuenak bereganatzen lagunduko du, eta gaitasun hori garatzen lagunduko du.

Era berean, beharrezkoa izango da ikasgelako arte-aldien azterketa, irakasleek gidatutako obren azterketa eta ikasleen hurbileko arte-erreferentzia diren lekuetara joatea, baina baita ikasleei bide hori egiten irakastea ere, arte-lanak beren eguneroko bizitzan edo eskolatik urrun egiten dituzten bidaia pertsonaletan ikustean.

6. Denboran zehar gizarte desberdinek izan dituzten erronka nagusiak ezagutzea, gertatutako aldaketen kausak eta ondorioak eta gaur egun konpondu behar dituzten arazoak identifikatuz, ikerketa-proiektuak garatuz eta informazio-iturri fidagarriak erabiliz, errealitatea ulertzeko eta egungo erronken aurrean proposamen alternatiboak aintzat hartzeko.

Gizateriak, bizirauteko baliabideak eta horiek banatzeko modua antolatzetik, gizartean organizatzeko eta parte hartzeko moduari lotutako auzietara, etengabe aurre egin behar die erronkei eta arazoei, bai inguruneari dagokionez, bai bere komunitatearen barruan. Ingurunearekiko elkarrekintzan, gizarte-harremanen antolaketan, boterearen erabileran, eta sinesmen eta adierazpen kulturalen bidez, gizakiak, aipatutako erronka eta arazoen aurrean eman dituen erantzunek, denboran zehar gertatu diren zibilizazioen oinarriak osatzen dituzte.

Guzti hori, proiektu, erronka edo arazoen bidez, banaka zein taldean, ikasteak, aukera ematen die ikasleei, aldez aurretik eskuratutako jakintzak mobilizatzeko, eta bizi diren munduan garrantzi edo interes berezia duten fenomeno, egoera edo gertaerak aztertzeko eta ulertzeko, baita askotariko estrategiak eta trebetasunak abian jartzeko ere. Ikasteko modu horrek, halaber, ikasleei protagonismoa ematen die beraien ezagutzaren eraikuntzan. Zeregin aktiboa abian jarriko dute produktuen sorrera prozesuan, bai azterketa eta ikerketako estrategien bidez, bai irudikapen grafiko, kartografiko eta bisualeko hainbat modu maneiatuz, eta bai komunikabideak zuzen, kritikoki eta eraginkortasunez erabiliz. Metodologiak, era berean, gauzatzen diren produktuei erabilgarritasun-zentzua ematea suposatzen du, alde batetik,

komunitateari eragiten dioten egungo arazoekin haiek lotuz, eta, beste aldetik, aztertzea, ulertzea eta konpromisua eskatzen dituzten arazoak aipatuz. Horrela, iraganeko edo gaur egungo edozein gaik garrantzia hartzen du, errealitatea ulertzen eta egungo erronken aurrean proposamenak eta alternatibak baloratzen laguntzen baitu, Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzea barne.

7. Sistema demokratikoak eta horien oinarrizko legeak eraikitzera —konstituzioak— iritsi arte Historian zehar izan diren antolaketa politiko motak azaltzea, komunitatean bizitzeak berezkoak ditugun betebeharrak eta eskubideak onartuz, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzeko.

Konstituzioek estatuen elkarbizitza-eredua osatzen duten printzipioak eta oinarriak biltzen dituzte, gure askatasunak eta eskubideak bermatuz, eta, aldi berean, erantzukizun zibila, herritarren ekimena eta gizarte-kohesioa sustatuz. 1978ko Konstituzioa gure iragan hurbileko une jakin baten ondorioa da, demokraziarako Trantsizioarena, baina, zalantzarik gabe, ibilbide luzeago baten jarraipena da, hain zuzen ere, historian zehar gaur egungo sistema demokratikoen eraikuntzara iritsi arte eman diren antolaketa politiko mota desberdinekin lotzen den ibilbidearena. Ibilbide hori ezagutzeak berekin dakartza egungo demokraziarako bidea identifikatzea, memoria demokratikoa eta gure egungo Gizarte- eta Zuzenbide-estatuaren aurrerapen eta lorpen gehienak beren konpromisoaren bidez markatu dituzten pertsona guztien ekarpena ikusaraztea, emakumeek bizitza sozial eta politikoan eskubide osoko herritar gisa parte hartzearen alde egindako borroka kontuan hartuta eta nabarmenduta.

Konstituzioa egungo identitate zibikoaren sinbolo aktiboa da, eta indarrean egotea mehatxatzen duten lege-hausteen aurrean, ikasleen artean zaintza-jarrera sustatu behar du, batez ere askatasunak eta oinarrizko eskubideak erasotzen dituztenen aurrean. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu bitartekaritza erabiltzea, edozein gatazkaren kudeaketa baketsua lortzeko, bizikidetza demokratikoa lortzearen parte ere badela.

8. Paisaiaren elementuak eta horiek sistema konplexu natural eta antropikoetan —landakoak eta hirikoak— duten artikulazioa identifikatzea eta aztertzea, baita denboran izan duten eboluzioa ere, eraldaketen kausak interpretatuz eta ekosistemetan dagoen oreka-maila baloratuz, ekosistema horien kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera jasangarria sustatzeko.

Paisaiako elementuak eta horien artikulazioa, sistema konplexutan, identifikatzeak eta aztertzeak, aukera ematen die ikasleei euren ingurunea eta horren eboluzioa ezagutzeko eta aztertzeko, paisaien oreka-maila eta arazoak ebaluatuz (biodibertsitatearen galera, lurzoruen higadura, artifizializazioa, etab.). Ingurune naturala kontserbatzea helburua izanda, kausa anitzeko ikuspegiak bai aipatutako guztiaren ulermena bai ikasleen jarrera arduratsua errazten ditu. Bestalde, bizi garen espazioen (natura-, landa- edo hiri-inguruneen) ingurumen-kalitateak guztion oraina eta etorkizuna hainbat zentzutan baldintzatzen ditu. Ondorioz, ikasleek, gure gizartean garapen pertsonalerako eskaintzen zaizkien aukerak baloratu beharko dituzte, baina mugak ere, espazio naturalen mantentzea, bisorkuntza eta zaintza bermatzeko eta hiri handietako kutsadura, landa-ingurunearen despopulazioa eta habitat naturalen jasangarritasuna bezalako arazoak ere aintzat hartzeko.

Konpetentzia honek berekin dakar, halaber, krisi klimatikoaren ondorioen larritasunaz eta izaki bizidun guztion duintasuna errespetatzen duten jokabideak hartzeko

beharraz jabetzea, garapen jasangarria ziurtatzeko eta jarrera aktiboak eta partaidetzakoak sustatzeko asmoz. Eta horri gehitu behar zaio, ingurunea, oro har, hobetzea, bai toki-mailan, bai mundu-mailan, eta baliabideen banaketa justu, bidezko eta solidarioaren alde, zentzu globalean, egitea.

9. Ikasleak beren betebeharrak ulertzea eta arduraz hartzea, beren eskubideak gainerakoekiko errespetuan ezagutu eta erabiltzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetza eta elkartasuna praktikatzea, elkarrizketan aritzea eta, hala, giza eskubideak finkatzea gizarte plural baten balio komun gisa, eta herritartasun demokratikoa baliatzeko prestatzeko. Nork bere burua erregulatzeko, ikasteko eta bakarka nahiz taldean lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea, ikasketak eraginkortasunez egiteko beharrezkoa den baldintza gisa eta norbera garatzeko bitarteko gisa. Genero-berdintasuna baloratzea eta sexu, genero, etnia, arraza edo gaitasunen arloko aniztasuna errespetatzea, gizonen eta emakumeen arteko edonolako diskriminazioa dakarten estereotipoak errefusatzeko.

Hezkuntza-sistemak, oro har hartuta, helburua du pertsonek beren kabuz pentsatzea, norberaren ezaugarri indibidualak lantzea —bereziki, autonomia eta erantzukizuna—, autoestimua indartzea, ahalegin pertsonalaren kultura bultzatzea eta besteenganako jarrera positiboak garatzea, zehazki errespetua eta enpatia. Izatea garatuz, halaber, balioetan eta elkarbizitzan oinarritutako prestakuntza eskaintzea da xedea, eta besteekin eta ingurunearekin partekatzea eta elkartasuna sustatzea, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasunaren ikuspegitik, bereziki azpimarratuz bai pertsona edo talde zaurgarrienganako arreta, baita zaintzaren etika modu eraginkorrean gauzatzea ere. Elkarrekin bizitzearen helburua da ikastetxeetan pertsona desberdinekiko esperientzia eta haien arteko errespetu- eta berdintasun-loturen eraikuntza sakontzea eta gatazkak zentzuz konpontzeko elkarrizketarako gaitasuna eta jarrerak garatzea, printzipio demokratikoak eta giza eskubideen errespetua eta bermea oinarri hartzen dituen hezkuntza aplikatuz eta balio eta esperientzia zibikoak landuz. Elkarbizitzak, funtsezko balio gisa, berekin dakar arlo publikoarekiko kezka kontuan hartzea, elkargune eta bizi-garapenerako gune komuna den aldetik, bai eta, bereziki, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren politikaren oinarri diren ondasun publikoak zaintzea; baina elkarbizitzak, era berean, berekin dakar natura zaintzeko erantzukizunean heztea, jasangarritasunaren eta elkartasunaren ikuspegitik.

Dokumentu ofiziala. Iturria: Hezigunea

CC BY NC SA

Sergio Tejero, Koldo Mitxelena BHIko "BeA" (Berrikuntza metodologikoaren Arduraduna)-(r)en 'KMk',
Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

Jatorrizko informazioa eta legedia, Hezigunean.